

GUGGENHEIM BILBAO

PRENTSA OHARRA


1.265.756 pertsonak bisitatu du Guggenheim Bilbao Museoa 2018an, haren historiako hirugarren urterik onenean

2018. urtea oso positiboa izan da Guggenheim Bilbao Museoaentzat, publikoaren aldetik jasotako babesari esker; zehazki, 1.265.756 bisitari jaso ditu, Museoaren historiako hirugarren zifrarik onenarekin. Datu hau bi urtetan baino ez da gainditu: 2017an, XX. Urteurrena ospatu zenean, eta 1998an, Museoa martxan zen lehen urtean. Zentzu horretan, Guggenheim Bilbao Museoa 2018an erakarririk bisitari-kopurua da, beste behin, erakundeak lurraldearen bultzatzaile gisa duen gaitasunaren froga.

Aurreko urteen aldean, 2018an Museoaren arte-programazioaz gozatzeko hautua egin zuten 1.265.756 pertsonak 2017an jasotako publikoa baino %4 gutxiago dira; izan ere, iaz, 113.966 bizkaitarrek baliatu zuten urriari Museoa doan bisitatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak luzatutako gonbidapena. 2016. urtearekin alderatuz gero —Museoaren historiako laugarren urte onena izan zen hori—, 2018an 96.352 bisitari gehiago izan ziren; 2015.aren aldean —bosgarren urte onena—, berriz, 2018an 162.545 bisitari gehiago hartu zituen erakundeak. Datu horiek Museoaren goranzko joera berresten dute.


Jatorri geografikoa kontutan hartuz gero, aurreko urteetan bezala mantentzen da atzerritarren portzentaje altua (bisitari osoen %71a, iaz baino %9 gehiago); gehienbat Frantziatik (%18), Britainia Handitik (%9), Alemaniatik (%6), Ameriketako Estatu Batuetatik (%6) eta Italiatik (%5) datozenak. Euskal Herritik datorren bisitarien portzentajea %9ean kokatzen da, aurreko urtean baino %11 gutxiago, hain zuzen ere lehen aipatu dugun urriko bizkaitarren etorrera hori dela-eta. Estatuko gainontzeko bisitarien portzentajea, bere aldetik, %20koa da; beti bezala, aipatzekoak dira Madril (bisitari kopuru osoaren %5) eta Bartzelonatik (%4) datozenak.

Bisitarien banaketa jatorri geografikoaren arabera:



GUGGENHEIM BILBAO

Atzerriko bisitarien banaketa jatorri geografikoaren arabera:



Arte-programazioa izan da bisitarietzako Museoak 2018an izan duen erakargarritasunik handiena. *Joana Vasconcelos. Zure ispilua naiz* erakusketa 649.082 bisitarik ikusi zuten uztailetik azarora bitartean, eguneko batez besteko bisitariak kontuan hartuz gero Museoaren historiako hirugarren erakusketa arrakastatsuen. *Artea eta Txina 1989 ondoren. Munduaren antzerkia* 619.411 pertsonak gozatu zuten maiatzetik irailera, eta *Chagall. Urte erabakigarriak, 1911-1919* erakusketa 453.182 pertsonak bisitatu zuten ekaina eta abuztua artean. Halaber, azpimarratzekoa da *Esther Ferrer. Elkarri lotutako guneak* erakusketak 303.535 pertsona erakarri zituela martxoaren erdialdetik ekain erdialdera arte; kopuru handia da epealdi horretarako.

Esparru digitalari dagokionez, **guggenheim-bilbao.eus** webguneak 2.403.623 bisitaldi eta bistaratutako 8.781.831 orrialde erregistratu zituen guztira 2018an, iazko datuen ildo beretik; era berean, Museoaren sare sozialek haien komunitate eta eragina handitzen jarraitu dute: 298.380 jarraitzaile ditugu Facebooken, 366.000 Twitterren eta 390.000 Instagramen.

Hezkuntza-programei dagokienez, 139.604 pertsonak parte hartu du 2018an Museoak eskaintzen dituen jarduera presentzialetan nahiz online jardueretan; 977.751 pertsona izan dira arte-programazioaren osagarri diren espazio didaktikoak erabili dituztenak eta, 688.938 entzuteko gidak erabili dituztenak. Iragan urteko arrakasta nagusien artean TopARTEren jarraipena nabarmentzen da. Ekimen hura 2017an inauguratu zen XX. Urteurrenaren markoan, eta 2018an jarraitu du. TopARTEren bitartez, Museoeko espazioak ireki zaizkie EAEko kultura-agente eta -erakundeei, diziplina desberdinetako (musika, zinema, bideoa, dantza, performancea, antzerkia eta gastronomia) programazio aberatsa eskaintzeko. Beste datu azpimarragarri bat New Yorkeko *Basque Internship at the Solomon R. Guggenheim Museum* beka-programaren finkapena da; EAEko 24 gaztek eskuratu dute jada.

Komunitate zabal bat

GUGGENHEIM BILBAO

Museoko **banakako kideei** dagokionez, **45.392** dira Community osatzen dutenak, Museoak 2017an artearen eta kulturaren inguruan sortutako komunitate berrian. Kolektiboan arabera banatuz gero, **19.762** dira **Museoaren Lagunak**. Museoa martxan jarri zenetik kopuru handiena osatuz eta Museoak gertuko ingurunean daukan gizarte-babes zabala ziurtatuz; bere aldetik, 23.958 dira Jarraitzaileak, Museoarekin harremana ezartzeko sortu den doako modalitatean, eta 1.672 onuradun izan ditu **Erdu programak**, langabezia-egoeran dauden pertsonen Museorako doako sarbidea eskaintzen dien programak.

Bere aldetik, eta Guggenheim Bilbao Museoak 2018an izan duen **enpresa-partaidetzari** dagokionez, 124 izan dira Kide Korporatiboak, erakundearen finantzabidearen funtsezko oinarri direnak eta Communityren parte ere osatzen dutenak.

Ekonomiaren higiarazlea

Azkenik, eta Guggenheim Bilbao Museoaren funtzionamenduak daukan **inpaktu ekonomikoari** dagokionez, aurreko urteetako datuak gainditzen dituzte **2018ko emaitzek**. Honakoak dira:

- Museoaren jarduerari esker Euskadin **sortutako eskariaren** guztizkoa 538,7 milioi eurokoa izan da.
- 471,4 milioi euroko ekarpena egin zaio Barne Produktu Gordinari.
- Kopuru horiei esker, 73 milioi euro gehiagoko **diru-sarrera** egin da **Euskal Ogasun Publikoetan**.
- Museoaren jarduerak 10.089 **enplegu** mantentzen lagundu du.

Beste urte batez, Europako kultura-erakundearen artean buru izaten jarraitzen du Museoak **autofinantziazio-mailan**. 2018an %70ekoa izan da datu hori gutxi gorabehera.

Bilbo, 2019ko urtarrilak 2